

Carmen Valois

IRAKASLEA

Bolognari begira

Bolognako prozesuaren inguruan hamaika hausnarketa egin daitezke. Izan ere, inplikaturiko aldeek gehien komeni zaien arloa plazartuko dute: batzuek alde ideologikoari erreparatuko diote, beste batzuek helburu estrategikoei. Hainbatek onurak azpimarratuko dituzte, besteek ereduaren morrontzak eta itxurazko aldaketen falsukeria.

Edonola ere, gaur egun unibertsitateak trantsizio aldian daude, eta orain arteko ikasketak egokitu beharko dituzte 2010-2011 ikasturtean ezarriko diren gradu berriei begira. Jakinaenez, honek hainbat aldaketa ekarriko ditu, hala nola, titulazioen egitura berriaren ikuspegitik zein aplikatu beharreko irakaskuntza metodologian ere.

Eta hain zuzen niri, irakasle lanetan ibiltzea egokitu zaidanean, bada gai honetan atentzioa ematen didan arlo bat, hots, kompetentzia. Bai, kontua da azken bolada honetan Europar Espaziora egokitzearen prozesuarekin lotuta, hitz hori maiz entzuten dela unibertsitatean. Badirudi horrek sortaraziko dituen aldaketek erabateko garrantzia hartuko dutela geroari begira, bai ikasleengan eta baita unibertsitatean ere. Zergatik? Ba



DANI BLANCO

ikasleen kompetentziak garatzea izango delako irakaskuntza-sistema berri honen ardatz funtsetako bat.

Nonbait, ikasleen kompetentziak garatzea eta egokitzea oso onuragarria izango da: bai, egokitze prozesu horretan gizar-tearen beharrak kontuan hartuko direlako; bai, ikasleen parte-hartzea hezkuntza sistemaren muinean egongo delako, eta bai, azken finean, ikasleei autonomia aitortzea suposatzen duelako.

Baina bada honetan guztian faltan botatzen dudana gauza bat, hau da, irakasleen kompetentzien inguruko hausnarketa, ezen alderdi formalaz haratago, iruditzen zait irakasteko ez dela nahikoa izaten ezaguera arlo zehatz bat menperatzea, ezta lan esparru batean esperientzia izatea ere. Irakasteak ikasleak kontuan hartzea eskatzen du, ikasketa prozesuan inplikatzeko, eta baita horren garrantziaz jabetzea ere.

Eta honenbestez, otu zait pentsatzea unibertsitate-ikasleen kompetentziak garatzeko, eduki teorikoak lantzeaz gain, norberaren kompetentziak, balioak, eta jarrerak kontuan hartu beharko ditugula, horiek izango baitute ikasleengan benetako eragina eta proiektzioa. Horiek izango baitira, funtsean, Bolognari begiratzeko ezinbesteko baldintzak. ▢



Unibertsitate-ikasleen
kompetentziak garatzeko, eduki
teorikoak lantzeaz gain,
norberaren kompetentziak,
balioak, eta jarrerak kontuan
hartu beharko ditugu



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Entzuten ditut eguneroko kotxebide laburretan. Luzeagotan, tartekakotan, nik aukeratutako musika. Zernahi dela ere gaia, iritziak emateko prest. Ofizioa, bizibidea. Profesionalak alegia. Ahotsen koloreak, erritmoak eta tonok nola erabiltzen dituzten ditugu mezu laguntzaileak, askotan plantak ari direla egiten salatzen dizkigutenak. Audientzia gehien biltzen omen dituzte eta irрати kateen arteko lehian lanabes azkarrenetakoak omen arerioa garaitzeko. Jende berdina dabil han eta hemen merituak egiten lanpostua xede. Gustukoa nuke jardun horretan eskarmentu handia duten

Kalakariak

bertsolariak aktualitateari helduz bertsotan entzutea. Jarritako bertsoek ere balukete beren lekua, paperezkoetan soilki suelto utzi gabe. Saiotakoen berri ematen dutenetatik aparte, euskal irratietan holako formulak erabiltzeak balio erantsia ekarriko liekete erdaldunen aurrean euskaldundegoa haietara erakarriz. Eman dezagun astean behin edo bertsolarien tertulia antolatzen dela, hori bai bertsotan, bestela ere erabiltzen dituzten gaiak aitzaki. Ez legoke gaizki, eta oso erraza aproba egitea. Umorearen kolorea behintzat ez genuke faltako eta ez da gutxi. *El cocidito madrileño*ri sutan jarritako eltzea parean ezarri alegia. ▢